

**LANKIDETZA-HITZARMENA EIBARKO
UDALAREN ETA CODESYNTAX SL-REN
ARTEAN INTERNATIONAL PLONE
CONFERENCE 2023 ANTOLATZEKO**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE
AYUNTAMIENTO DE EIBAR Y
CODESYNTAX S.L PARA LA
ORGANIZACIÓN DE LA
INTERNATIONAL PLONE
CONFERENCE 2023**

BILDU DIRA,

REUNIDOS

Batetik, **CODESYNTAX SL** (aurrerantzean, **CODESYNTAX**), egoitza soziala Azitaingo Industrialdea 3-K-n duena, 20600 posta-kodea, eta B-20696092 IFK, egintza honetan, eta administratzaile gisa, Iñigo Astigarraga Arakistain jaunak ordezkaturia.

De una parte, **CODESYNTAX S.L** (en adelante, **CODESYNTAX**), con domicilio social en Azitaingo Industrialdea 3-K, código postal 20600, y con C.I.F. número B-20696092, representada en este acto por D.Iñigo Astigarraga Arakistain, en calidad de administrador.

Eta, bestetik, **EIBARKO UDALA**, helbidea Untzaga plazan duena, 20600 posta-kodea, eta P2003100A IFZ, egintza honetan, Eibarko alkate gisa, Jon Iraola Iriondo jaunak ordezkaturia

Y de otra parte, el **AYUNTAMIENTO DE EIBAR**, con domicilio en Plaza Untzaga, código postal 20600, y NIF número P2003100A, representada en este acto por D. Jon Iraola Iriondo, en calidad de Alcalde de Eibar,

Aldeek onartzen dute gaitasun juridikoa nahikoa daukatela agiri hau egiteko eta beren ordezkaturiak behartzeko, eta aipatu ondorioetarako,

Las partes se reconocen con capacidad legal suficiente para otorgar el presente documento y obligar a sus representadas, y a los mencionados efectos,

HAUXE AZALTZEN DUTE

EXPONEN

- I. EIBARKO UDALA estrategia sendoa garatzen ari da hiriari bultzada sozioekonomiko bat emateko, haren teknologia- eta industria-politika suspertu, eta enpresa-lehiakortasuna eta gizarte-berrikuntza sustatu eta bultzatzeko.
- II. CODESYNTAX egoitza Eibarren duen enpresa bat da, bere negozio-eredua Software Librean eta iturri irekietan (open source) oinarritzen duena, softwarearen garapena eta zerbitzuen ezarpena eta prestazioa

- I. Que el AYUNTAMIENTO de EIBAR, viene desarrollando una intensa estrategia de promoción e impulso socioeconómico de la ciudad, de su política tecnológica e industrial y de fomento de la competitividad empresarial e innovación social.
- II. Que CODESYNTAX es una empresa con sede en Eibar que basa su modelo de negocio en el Software Libre y fuentes abiertas (open source), abarcando desde el desarrollo de software a la

barne hartuz, eta Plone Foundation irabazi-asmorik gabeko software libreko nazioarteko erakundearen parte dena, zeinak urtero PLONE CONFERENCE (aurrerantzean PLONECONF) konferentzia antolatzen duen.

implantación y prestación de servicios, y que es parte de Plone Foundation, una entidad internacional de software libre sin ánimo de lucro que organiza anualmente la conferencia PLONE CONFERENCE (en adelante PLONECONF).

III. PLONECONF konferentzia teknologiko bat da CMS Plone sustatzea duena xede; urrian egin ohi da, eta 200 aditu inguruk parte hartzen dute presentzialki (ingeniaritza, garapena, informatika, sistemak, diseinua, erabilgarritasuna...), eta beste 200 batek online. Namur (Belgika), Ferrara (Italia), Bristol (Erresuma Batua), Bukarest (Errumania), Tokio (Japonia), Bartzelona, Boston, San Frantzisko, Brasilia... PLONECONF konferentziaren egoitza izan dira aurreko edizioetan.

III. Que PLONECONF es un conferencia tecnológica para promover el CMS Plone, celebrada habitualmente en octubre, en la que participan alrededor de 200 personas expertas (ingeniería, desarrollo, informática, sistemas, diseño, usabilidad...) in situ y aproximadamente otras 200 personas siguen y participan online. Namur (Bélgica), Ferrara (Italia), Bristol (Reino Unido), Bucarest (Rumania), Tokio (Japón), Barcelona, Boston, San Francisco, Brasilia,... han sido sedes de la PLONECONF en ocasiones anteriores.

IV. CODESYNTAX enpresak bere gain hartu du Eibarren PLONECONF antolatzeko ardura eta erronka, 2023ko urriaren 2tik 8ra bitartean.

IV. Que CODESYNTAX ha asumido la responsabilidad y el reto de organizar la PLONECONF en Eibar, entre los días 2 y 8 de octubre 2023.

V. Ekitaldiaren helburua da software librearen sektorearen azken joerak erakustea, ezagutza eta esperientzia globalen trukean oinarritutako Plone eta harekin lotutako beste teknologia libre batzuen garapena sustatzea, eta kultura irekia bultzatzea.

V. Que el evento tiene como objetivo mostrar las últimas tendencias del sector de software libre, fomentar el desarrollo de Plone y otras tecnologías libres asociadas en base al intercambio de conocimientos y experiencias globales y promocionar la cultura abierta.

VI. EIBARKO UDALAK eta CODESYNTAX adosten dute elkarlanean jardutea PLONECONF konferentziaren antolaketan, akordio honek jasotzen duenaren arabera.

VI. Que el AYUNTAMIENTO de EIBAR y CODESYNTAX acuerdan colaborar en la organización de la PLONECONF en los términos que recoge este acuerdo.

AKORDIOAK

ACUERDOS

Lehenengoa. Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen xedea da CODESYNTAXEN eta EIBARKO UDALAREN arteko lankidetzaz-esparrua ezartzea, International Plone Conference (PLONECONF) antolatzeko. Ekitaldia Eibarren egingo da 2023ko urriaren 2tik 8ra bitartean.

Bigarrena. Bi aldeen konpromisoak

2.1. Eibarko UDALAREN konpromisoak.

- EIBARKO UDALAK doan jarriko ditu CODESYNTAXEN esku honako espazio eta zerbitzuak:
 - a) Coliseoko aretoak eta atondoa 2023ko urriaren 4an, 5ean eta 6an, bai eta ondorengo garbiketa-zerbitzua eta Coliseoko arduradun tekniko baten laguntza teknikoa, ekitaldia egin bitartean.
 - b) Errebaleko 1.A eta 1.B aretoak, 2023ko urriaren 7an eta 8an, eta ondorengo garbiketa-zerbitzua.
 - c) Errebal plaza urriaren 5eko arratsalde-gauean, eta ondorengo garbiketa-zerbitzua.
- Udaleko instalazioetan eskuragarri dauden tresnak eta bitarteko materialak, PLONECONF konferentziaren egunetan.
- EIBARKO UDALEKO ordezkari politiko batek UDALAREN izenean parte hartuko du bi alderdien artean adostutako ekimenetan: prentsaurrekoak, PLONECONF konferentziaren irekiera-edota itxiera-ekitaldiak edo beste batzuk.

2.2. CODESYNTAXEN konpromisoak

Primera. Objeto del convenio

El objeto de este convenio es el establecimiento del marco de colaboración entre CODESYNTAX y el AYUNTAMIENTO de EIBAR para la organización de la International Plone Conference (PLONECONF), que tendrá lugar en Eibar entre los días 2 y 8 de octubre de 2023.

Segunda. Compromisos de las partes.

2.1. Compromisos del AYUNTAMIENTO de EIBAR

- El AYUNTAMIENTO de EIBAR pondrá a disposición de CODESYNTAX de forma gratuita el uso de los siguientes espacios y servicios:
 - a) Las salas y el hall del Teatro Coliseo durante los días 4, 5 y 6 de octubre de 2023, así como el servicio de limpieza posterior y la asistencia técnica de un/a responsable técnico/a del Coliseo durante la celebración del evento.
 - b) Las salas 1.A y 1.B de Errebal los días 7 y 8 de octubre de 2023 y el servicio de limpieza posterior.
 - c) La Plaza Errebal la tarde-noche del día 5 de octubre y el servicio de limpieza posterior.
- Las herramientas y/o recursos materiales disponibles en las diferentes instalaciones del Ayuntamiento en los días de celebración de la PLONECONF.
- Un representante político del AYUNTAMIENTO de EIBAR participará en nombre del AYUNTAMIENTO en los actos acordados entre ambas partes al concretar el programa de actividades: ruedas de prensa, actos de apertura y/o cierre de la PLONECONF u otras.

2.2. Compromisos de CODESYNTAX

- CODESYNTAX enpresak ekitaldia behar bezala garatzeko beharrezkoak diren baliabide material eta giza baliabide guztiak jarriko ditu ekitaldiaren eskura, "Eibarko Udalaren konpromisoak" atalean adierazitako bitartekoak izan ezik
- CODESYNTAX arduratuko da ekitaldia egiteko beharrezkoa diren aparteko behar edo aldaketak kudeatzeaz eta finantzatzeaz, eta ekitaldia amaitzean, dena lehengo egoerara itzultzeaz.
- EIBARKO UDALA markaren erabilera arduratsua egingo du. EIBARKO UDALAREN kolore eta logotipoa errespetatuko du une oro, indarrean dagoen legediaren arabera, eta soilik erabiliko du akordio honetan ezarritakoaren ondorioetarako.
- EIBARKO UDALARI laguntzaile-estatusa emango dio PLONECONF konferentzia egin aurretik, bitartean eta ondoren egiten dituen marketin- eta komunikazio-ekintza guztietan.
- EIBARKO UDALEKO logotipoak sartuko ditu publizitate-materialetan eta erabiliko dituen seinaleetan.
- EIBARKO UDALAK herriko biztanleei zuzendutako informazio- eta zabalkunde-ekintzetan ezarritako hizkuntza-irizpideak beteko ditu (I. eranskina).
- EIBARKO UDALAK ezarritako ingurumen-irizpideak beteko ditu (II. eranskina).
- EIBARKO UDALARI 4 sarrera emango dizkio, teknikariak zuzeneko ekitaldira joateko.
- CODESYNTAX pondrá a disposición del evento, todos los medios materiales y humanos necesarios para el correcto desarrollo del mismo, con excepción de los medios indicados en el apartado "Compromisos del Ayuntamiento de Eibar".
- CODESYNTAX se encargará de gestionar y financiar cualquier necesidad extra o cambio requerido para la celebración del evento y de devolver todo a su estado original a la finalización del mismo.
- Realizará un uso responsable de la marca del AYUNTAMIENTO de EIBAR. Respetará en todo momento el color y logotipo del AYUNTAMIENTO de EIBAR conforme a la legalidad vigente y lo utilizará solo a los efectos de lo dispuesto en el presente acuerdo.
- Otorgará al AYUNTAMIENTO de EIBAR el status de colaborador en todas las acciones de marketing y comunicación que realice antes, durante y después de la PLONECONF.
- Incorporará los logotipos del AYUNTAMIENTO de EIBAR en los materiales publicitarios y señalética a utilizar.
- Cumplirá los criterios lingüísticos establecidos por el AYUNTAMIENTO de EIBAR en las acciones de información y difusión dirigidas a la población local (anexo I).
- Cumplirá los criterios medioambientales establecidos por el AYUNTAMIENTO de EIBAR (anexo II).
- Ofrecerá al AYUNTAMIENTO de EIBAR 4 entradas para la asistencia de técnicos/as al evento en directo.

- EIBARKO UDALARI PLONECONF 2023rekin lotutako ekitaldietan parte hartzeko aukera eskainiko dio, eta erraztu egingo du EIBARKO UDALEKO ordezkari politikoen parte-hartzea PLONECONF konferentziaren irekiera-eta/edo itxiera-ekitaldietan, edo programa zehaztean bi alderdiek adosten dituzten beste jarduera batzuetan.
- EIBARKO UDALARI, gehienez ere 60 eguneko epean, PLONECONF amaitzen denetik aurrera, itxiera-memoria bat egin eta aurkeztuko du, ekitaldiari buruzko informazio orokorra, egindako zabalkunde-jarduerak eta udalerrian sortutako inpaktua bilduko dituen.
- EIBARKO UDALARI ekitaldia behar bezala burutzeko egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egiten lagunduko dio, eta jarduerari buruz eskatzen zaion dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.
- Oferecerá al AYUNTAMIENTO de EIBAR la posibilidad de participar en los actos relacionados con PLONECONF 2023 y facilitará la participación de representantes políticos del AYUNTAMIENTO de EIBAR en ruedas de prensa, actos de apertura y/o cierre de la PLONECONF u otras actividades que se acuerden entre ambas partes al concretar el programa.
- Elaborará y presentará al AYUNTAMIENTO de EIBAR, en un plazo máximo de 60 días a contar desde la finalización de la PLONECONF, una memoria de cierre que recoja información de carácter general del evento, así como las actividades de difusión realizadas y el impacto generado en el municipio.
- Facilitará al AYUNTAMIENTO de EIBAR la realización de las comprobaciones que ésta considere oportunas para el buen desarrollo del evento, debiendo aportar cuanta documentación referida a la actividad le sea requerida.

Hirugarrena. Jarraipen Batzordea.

Hitzarmenaren jarraipena errazteko, Jarraipen-Batzorde bat eratuko da, gutxienez EIBARKO UDALEKO ordezkari 1ek eta CODESYNTAXeko ordezkari 1ek osatua.

Laugarrena. Hitzarmena zabaltzea.

Hitzarmen honen ondoriozko jarduerari buruz edozein komunikabidetan egiten den hedapenean, berariaz adierazi beharko da jarduera horiek Eibarko Udalaren eta CODESYNTAX artean ezarritako lankidetzaren arabera egiten direla.

Dokumentu honetan jasotako eta elkarrekin sustatutako jardueren hedapen-

Tercera. Comisión de seguimiento.

Para facilitar el seguimiento y cumplimiento del convenio, se constituirá una Comisión de Seguimiento integrada, como mínimo, por 1 representante del AYUNTAMIENTO de EIBAR y 1 de CODESYNTAX.

Cuarta. Difusión del convenio.

En la difusión que se realice en cualquier medio de comunicación sobre las actuaciones derivadas de este convenio, se hará constar expresamente que éstas se realizan en virtud de la colaboración establecida entre el AYUNTAMIENTO de EIBAR y CODESYNTAX.

En los elementos de difusión de las actuaciones incluidas en este documento y

elementuetan bi erakundeen irudi korporatiboa agertuko da.

promovidas conjuntamente aparecerá la imagen corporativa de ambas instituciones.

Bosgarrena. Datu pertsonalen tratamendua.

Quinta. Tratamiento de datos de carácter personal.

Kontratu hau gauzatzean, alderdiek errespetatu egingo dute Datu Pertsonalak Babesteko arloan indarrean dagoen Estatuko eta Europako araudia, bereziki Datuak Babesteko EU 2016/679 Erregelamendu Orokorra eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta araudi horrek aipatzen dituen segurtasun-neurriak hartzera eta inplementatzera behartuta daude, eta, bereziki, eska daitezkeen segurtasun-mailen arabera dagozkionak.

En la ejecución del presente Contrato las Partes respetarán la normativa nacional y europea vigente en materia de Protección de Datos de Carácter Personal, específicamente el Reglamento EU 2016/679 general de Protección de Datos y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales, y se obligan a adoptar e implementar las medidas de seguridad a que se refiere dicha normativa, y, en particular, las que correspondan en función de los niveles de seguridad exigibles.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute datu pertsonalak babesteari buruz xedatutakoa betetzeko, bereziki EU 2016/679 Erregelamenduan eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa, eta, bereziki, interesdunei informazioa emateko eta beren datuak tratatzeko eta lagatzeko berariazko baimena eskatzeko betebeharrak.

Las partes se comprometen a cumplir lo dispuesto en materia de protección de datos de carácter personal, específicamente en el Reglamento EU 2016/679 y Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales, y, específicamente, las obligaciones de información y exigencia de consentimiento expreso a los interesados para el tratamiento y cesión de sus datos.

Seigarrena. Indarraldia.

Sexta. Vigencia.

Akordio hau sinatzen den unean jarriko da indarrean, eta 2.2 puntuan aurreikusitako itxiera-memoria entregatu arte izango du balioa, bertan deskribatutako baldintzetan. Nolanahi ere, akordioa 2023ko abenduaren 31 baino lehen amaituko da.

Este acuerdo entrará en vigor en el momento de su firma y tendrá validez hasta la entrega de la memoria de cierre prevista en el punto 2.2, en las condiciones descritas en el mismo. En cualquier caso, el acuerdo finalizará antes del 31 de diciembre de 2023.

Zazpigarrena. Ebazpen aurreratua.

Séptima. Resolución anticipada.

Honako hauek izango dira hitzarmen hau aurretiaz hutsaltzeko arrazoiak:

Serán causas de rescisión anticipada del presente convenio:

- Alderdietako batek klausularen bat ez betetzea.

- Alderdien arteko adostasuna.
- Alderdietako edozeinen salaketa.
- Betetzea eragozten duten lege- edo erregelamendu-xedapenak indarrean jartzea.

- El incumplimiento de cualquiera de sus cláusulas por alguna de las partes.
- El mutuo acuerdo de las partes.
- La denuncia de cualquiera de las partes.
- La entrada en vigor de disposiciones legales o reglamentarias que impidan su cumplimiento.

Zortzigarrena. Aplikatu beharreko legea eta men egitea.

Hitzarmen hau Espainiako legediaren arabera interpretatuko da. Bereziki, hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera arautuko da.

Hitzarmen honen interpretazioari, aldaketari, suntsiarazpenari eta ondorioei buruz sor daitezkeen eztabaidak alderdien artean ebatziko dira, eta adiskidetzeko modu guztiak agortuko dira, judizioz kanpoko adiskidetasunezko akordio batera iristeko. Halakorik ezean, Donostiako jurisdikzio-organo eskudunek izango dute auzigaiez arduratzeko eskumena, eta alderdiek berariaz uko egingo diote beren foruari, desberdina bada.

Eta hitzartutakoa jasota gera dadin, aldeek agiri honen bi ale sinatzen dituzte, ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Eibarko Alkatea / Alcalde de Eibar
Jon Iraola Iriondo

Octava. Ley aplicable y sumisión.

El presente Convenio se interpretará de conformidad con la legislación española. En particular, este Convenio tiene naturaleza administrativa y se regirá por lo dispuesto en los artículos 47 y siguientes de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Las controversias que puedan surgir sobre la interpretación, modificación, resolución y efectos que puedan derivarse del presente Convenio se resolverán entre las Partes, agotando todas las formas posibles de conciliación para llegar a un acuerdo amistoso extrajudicial. En su defecto, serán competentes para conocer las cuestiones litigiosas los órganos jurisdiccionales competentes de la ciudad de Donostia- San Sebastián, renunciando las partes de forma expresa a su propio fuero si fuese distinto.

Y para dejar constancia de lo convenido, las partes firman el presente documento por duplicado ejemplar y a un solo efecto, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

CODESYNTAX
Iñigo Astigarraga Arakistain

Eibarko Udalaren Idazkaria / Secretario del
Ayuntamiento de Eibar
Juan Agustín Villafranca Bellido

I.ERANSKINA: HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

ANEXO I: CRITERIOS LINGÜÍSTICOS

Hizkuntza paisaia:

Errotuluetan, oharretan, seinaleetan eta gainerako komunikazio orokorretan ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, partaidetza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta -identitateen aniztasuna.

Paisaje lingüístico:

Los rótulos, avisos, señalizaciones y resto de comunicaciones de carácter general deberán hacer un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de Género.

Erabilera herritarrekin:

Bertako herritarrei zuzendutako ekitaldiaren berri emateko komunikazioa eta idatzizko eta ahozko publizitatea eta propaganda euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira.

Uso con la ciudadanía local:

La comunicación informativa del evento y la publicidad y propaganda escrita y oral dirigida a la población local se realizará en euskera, o en euskera y castellano.

Ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazioa edo estereotipo sexistak erakusten duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, partaidetza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero rolen eta -identitateen aniztasuna.

Se deberá hacer un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de Género.

Erabilera Eibarko Udalarekin:

Enpresak Udaleko arduradun teknikoarekin izango dituen ahozko eta idatzizko harremanak euskaraz izango dira, ahal den guztietan.

Uso del euskera con el Ayuntamiento:

Las relaciones de la empresa con la responsable técnica del Ayuntamiento serán en euskera, en la medida de lo posible.

II.ERANSKINA:INGURUMEN IRIZPIDEAK

ANEXO II: CRITERIOS AMBIENTALES

Komunikazioak

Comunicaciones

Parte-hartzaileekiko komunikazioa posta elektronikoaren eta telefonoaren bidez egitea lehenetsiko da. Beraz, behar duten dokumentazio guztia bide horretatik bidali eta onartuko da (erregistro-orriak, informazio interesgarria, etab.).

La comunicación con los participantes se priorizará vía correo electrónico y teléfono, enviando y aceptando por este medio toda la documentación que necesiten (hojas de registro, información de interés, etc.).

Enpresa adjudikaziodunak, ikastaroak, tailerrak, emanaldiak eta abar antolatu eta emateko bidalitako mezu elektroniko guztien sinaduretan orrialde-oin berde bat jarri beharko du (adib.: *Ez inprimatu mezu hau edo erantsitako dokumentuak, beharrezkoa ez bada. Ingurumena zaintzea guztion erantzukizuna da.*)

La empresa adjudicataria deberá incluir en las firmas de los correos electrónicos enviados para la organización e impartición de los cursos, talleres, actuaciones, etc. un pie de página verde (p.e. *No imprimas este mensaje o sus documentos adjuntos si no es necesario. Respetar el medio ambiente es responsabilidad de todos y todas.*)

Lan-dokumentuak eta jakinarazpenak

Documentos de trabajo y notificaciones

Paperaren kontsumoa murrizteko, zerbitzuan sortutako lan-dokumentu guztiak euskarri elektronikoan entregatuko dira. Ahal dela, posta elektronikoz edo zerbitzari baten bidez bidaliko dira. Hori ezinezkoa balitz, CD edo antzeko euskarri birgrabagarri/berrerabilgarriren batean entregatuko dira.

Para reducir el consumo de papel, todos los documentos de trabajo generados durante el servicio se entregarán en formato digital. Preferentemente se enviarán por correo electrónico o a través de servidor. Si no fuera posible, se entregarán en CD o similar grabable/reutilizable.

Dokumentazioa paperean aurkeztu behar izanez gero, "Materialak" atalean ezarritako irizpideak bete beharko dira.

En caso de que fuera necesario presentar documentación en papel, se deberán cumplir los criterios establecidos en el apartado de "Materiales".

Materialak

Materiales

Saioetan erabilitako materialak ingurumenean ahalik eta eragin txikiena izan behar du. Ahal den guztietan, jarduera burutzerakoan honela jokatu da:

El material utilizado en las sesiones deberá implicar el menor impacto ambiental de la actividad. Siempre que sea posible, esta actividad se llevará a cabo a través de:

- Saio batetik bestera berrerabiltzeko materiala erabiltzea
- Eta/edo online materialaz baliatzea, ahalik eta material gutxien inprimatzea eta erabiltzea eskatzen duena.

- Material que pueda volver a ser utilizado de una sesión a otra
- Y/o a través de material online que implique la menor impresión y uso de material posible.

Jarduera egiteko papera erabili behar bada, inprimaketa % 100 birziklatutako paperean egingo da, eta, ahal den neurrian, alde bietatik eta zuri-beltzean.

En caso de tener que ser utilizado papel para la realización de la actividad, la impresión se realizará en papel 100% reciclado y será imprimido, en la medida de lo posible, a doble cara y en blanco y negro.

Halaber, erabiltzaileei gogorarazi beharko zaie materiala behar bezala kudeatu behar dutela erabili ondoren, birziklatu ahal izateko.

También se deberá recordar a los usuarios y usuarias la necesidad de la correcta gestión del material una vez usado para su posterior reciclado.

Argitalpenak

Publicaciones

Enpresa adjudikaziodunak ekitaldia garatzeko egiten duen edozein argitalpen (liburuxkak, kartelak,...) % 100 birziklatutako paperean egin beharko du (kontsumo-ondoko paper-zuntza % 85 edo gehiago izango duena); klororik gabea (TCF edo PCF); gutxienez % 70eko zuritasunarekin ISO 11475:2004 edo horren baliokidearen arabera; alde bietan inprimatuta, tinta metalizatuak erabili gabe eta, ahal dela, 2 tintarekin, ahalik eta azaleztatze gutxienarekin eta plastikozko estalkirik gabe (errazago birziklatzeko).

Cualquier publicación (folletos, carteles, etc.) elaborado por la empresa adjudicataria para el desarrollo del evento deberá hacerse en papel 100% reciclado (con un contenido en fibra post-consumo $\geq 85\%$), totalmente libre de cloro (TCF o PCF), con una blancura mínima del 70% según ISO 11475:2004 o equivalente, impreso a doble cara, sin tintas metalizadas y preferiblemente a 2 tintas, con la mínima encuadernación posible y sin tapas de plástico (para facilitar su reciclaje).

Paperaren gramajea erreferentzien taulara egokituko da (Eranskinaren 1. Taula) gramaje gutxikoena lehenetsiz, baina azken produktuaren kalitatea ziurtatuta.

El gramaje del papel se ajustará a la tabla de referencias (Tabla 1 del Anexo), priorizando el de menos gramaje, pero asegurando la calidad del producto final.

Argitaratu eta/edo editatuko materialak argitalpenaren ingurumen-ezaugarriei buruzko mezu bat eraman beharko du (adibidez: % 100ean birziklatutako paperean inprimatua, batere klororik gabe).

El material publicable y/o editado deberá llevar un mensaje ambiental sobre las características ambientales de la publicación (p.e. *Impreso en papel 100% reciclado totalmente libre de cloro*).

Paperak isurien eta konposatu kimikoen ingurumen-irizpideak bete beharko ditu, ekoetiketaren batean (I. Mota) zehaztutakoak (hala nola Aingeru Urdina, Europako Etiketa Ekologikoa, Zisne Nordikoa edo baliokidea) (Eranskinaren 2.Taula).

El papel deberá cumplir con los criterios ambientales de emisiones y compuestos químicos definidos en alguna ecoetiqueta (Tipo I) como el Ángel Azul, la Etiqueta Ecológica Europea, el Cisne Nórdico o equivalente (Tabla 2 del Anexo).

Ingurumen-jardunbide egokiak

Buenas prácticas ambientales

Udalak hala eskatuz gero, kontratistak birziklatze-puntuak jarri beharko ditu, behar bezala etiketatutako edo seinaleztatutako edukiontzi/kuboekin; gutxienez, paper-zatietarako, ontzietarako eta errefusarako. Hondakinak hiri-edukiontzietara botako dira.

Cuando el Ayuntamiento así lo solicitó, el contratista deberá colocar puntos de reciclaje con contenedores/cubos debidamente etiquetados o señalizados, por lo menos, para las fracciones de papel, envases y resto. Los residuos se depositarán en los contenedores urbanos correspondientes.

1.Taula. Paperaren gramajeari buruzko erreferentzi taula.

Erreferentzi taula	
Material mota	Gramajea
Diptikoak eta triptikoak	90-115g; 130 gramoraino Txartela: 200 gramoraino
Informazio buletinak	80-90g
Opuskuluak eta aldizkariak	Barrualdea: 80-100 g Kanpoaldea: 150-170 g 16 orrialderarte gramaje berean (90-115 g) edo paper bolumena 45-60 g
Gidaliburuak, katalogoak eta liburuak	Barrualdea: 80-90g, 130 gramoraino Kanpoaldea: 170-300 g
Posterrak eta kartelak	100-140g (normalean 115 g)
Artxibagailu pertsonalizatuak	Barrualdea: 75-100 g Orri-banatzailak: 200-250 g
CD zorroak	200-300 g

2.Taula. Paperaren ziurtagiri nagusiak

ZIURTAGIRI NAGUSIAK	
Ekoetiketak (I.Mota)	Baso-ustiapen jasagarria
  	 

Tabla 1. Tabla de referencias relativa al gramaje del papel.

Tabla de referencias	
Tipo de material	Gramaje
Dípticos y trípticos	90-115g, hasta 130 g Tarjetón: hasta 200g
Boletines informativos	80-90g
Opúsculos y revistas	Interior: 80-100g Exterior 150-170g Hasta 16 páginas un único gramaje (90-115g) o papel volumen 45-60g
Guías, catálogos y libros	Interior: 80-90g, hasta 130g Exterior 170-300g

Posters y carteles	100-140g (habitualmente 115g)
Archivadores personalizados	Interior: 75-100g Hojas separadoras 200-250 g
Fundas para CDs	200-300 g

Tabla 2. Certificados principales del papel.

CERTIFICADOS PRINCIPALES	
Ecoetiquetas (tipo I)	Explotación forestal sostenible
  	 